

Kandelario, bizitza eta heriotzaren argizario

Gabonetako ospakizunen ostean ugari dira neguaren amaiera eta udabarriaren hasikeraren tarte horretan doguzan bestelako ospakizun eta erritoak. Batzuk erdi galduta, beste batzuk oraindino sendo, baina danak lauso mundu pagano eta kristauaren arteko mugetan.

Alvaro Rabelli |

Saioi honetakoak daukaguz, besteak beste, Kanporamar-txoa, Kandelarioa, Aratuztea, Santa Ageda eta San Blas egunetako ospakizunak. Jatorri ezberdinetakoak izan arren, danak bat datoz neguaren amaierak dakarren natura eta biziaren erabarritzearen gurariagaz. Neguak ekarri-riko gatx eta iluntasunak atzean laga behar dira, gorputza eta arima osatzeko momentua da, bizirik sentiarazoten deuskun karnabala-ren sasoia.

Argiaren sasoia da beraz, argi erabarritua, oraindino motela, baina ez bakarrik mundu honetakoentzako argia, beste munduan dagozanentzako argia be bada.

Zezeilaren 2an Kandelario eguna ospatzen da. Egun honetan lehenago etxeoandreek batez be kandelak eta argizariak eroten ebezan eleizetara. Egun horretako mezan abadeak bedeinkatu egiten zituan. Ez egoan aparteko beste ohikunerik, baina oso inportantea zan ekintza hau. Etxekoandreek kandelok etxeetan leku jakin baten gordetzen ebezan (izera edo arropa artean, armarioetan eta kutxetan). Jenteak kandela horreek indar berezia ebela uste eban, eta etxeokok babesa behar ebenean (ekatxa egunetan edo arima herratu bat inguruan baebilen) berau iziotu eta partetxarreko guztiak uxatu egiten ziran honetara. Kandelok be, etxeok iñor hil ezkerok, difuntuaren gelako leihoan ipini ohi ziran auzokokok jakin egien nor zan hildakoa, edota difuntuari gaubeila egiteko be iziotzen ziran.

OKERRAK ZUZENDUZ	
Ondo portau neike	
OKER	ARTEZ
* Errez irabazi leikegu, gogoz saiatu ezkerok.	- Errez irabazi geinke, gogoz saiatu ezkerok.
* Gura izan ezkerok ondo portau leiket.	- Gura izan ezkerok ondo portau neike.
	Oharra: Normalean, pertsona nagusiek ondo erabilten dabez honeek formak, baina gazteen artean forma zuzenak galtzen dabilz.

Gaur egun be, esoterismo munduan antzeko erritoak ikusten dira, bidentee etxe bat «garbitzeko», hau da mamuak uxatzeko kandela zuri bat piztuta eroaten dabe gelaz gela. Besteetan kandelak iziotzen dabez etxeok baten arima gugana hurbiltzeko.

Baina bidenteen mundua alde batera lagata, agirikoa da kandelak leku berezia bete dauena difuntuaren erritoetan. Euskal tradizioan argizariak gorputz iragankorra sinbolizatzen dau, suak eta keak, barriz, hegaldaka doan arima. Horregaitik, argizaiokoi erreparatuz gero, konturatu zarie itxura antropoformikokoak dirala. Urtzen dan argizaria olan (etxunda dagoan gorputzean) batzen da biziaren zikloa barriro hasteko, bitartean keak difuntuaren arima gora daroa. Horretan be gure folkloreak berebizikok garrantzia emoten jake argizariaren egileei, erleei hatan be. Horreek otoitz berezietan gogotan doguz:

«Erle, erletxoak, egizue argizaria, etxeok jaubea hil da eta».

Kandelario egun horretan herriok umetxoek koplak kantetan ebezan mezaren ostean. Bedeinkatu barri egozan kandelatxoetako suak iziotu eta etxerik etxe joaten ziran zeozker eskatuz eurentzat. Horren adibide da hurrengo hau, Gernikaldeko kopla bilduma, oraindino bizirik irauten dauena. Hemen kopla batzuk agertu arren, ohitura zan horreetako bakar bat erabiltea. Guztietan argia da sasoiaren aipamena, etorteko dan udabarri eta bizi barria, hain zuzen.

Kandelarioz euria laster da udabarria, kandelarioz aterri negua dator atzeti.

Kandelario lario hatxari ura dario, errotari uruna hauxe da guk behar doguna.

Kandelarioz eguzki negua dago aurretik, kandelarioz edurra joan da neguaren bildurra.

Kandelario bero negua dauko gero, kandelario hotz negua joan da motz.

Kandelario lario hatxari ura dario, makatzari madari eutsi Peru hankeari.

SERAFIN IBARRA MARKINAKO ESKU PELOTA TALDEKO ARDURADUNA

«Norbere burua zaindu behar da pelotan aurrera egiteko»

Izaskun Basterretxea |

Markinako Esku Pelota Taldeko arduraduna da Serafin Ibarra. Urteak daroaz pelotari gazteei erakusten. Gaur egun 80 bat ume eta gazte dabilz Markinako taldean. Talde hori, lege, orain 18 bat urte sortu eben, baina Ibarra arinagotik dabil txapelketak gertetan, 25 bat urtetik. Berrizkoa da jaio-tze, baina urteak daroaz Markinan, hara ezkondu zan eta.

■ **Nongo ume eta gazteak dabilz zuen taldean?**

Markina, Etxebarria, Berriatua, Ondarroa, Munitibar eta Aulestikoak.

■ **Zuen artean bizkaieraz egiten dozue?**

Bai, batez be Markinako berbeta.

■ **Taldearen ibilbidea zelakoa izan da?**

Hasierea nahiko gogorra izan zan; zestara egiten eben askok eta mutikok onenak zestara pasetan ziran. Baina azkenengo bost urteotan gora jo dau eskuzkoak. Orain Bizkaiko finalak jokatuhar dira eta gure taldeko hiru bikotek ziur jokatuko dabe finala, eta laugarrenak ia seguru.

■ **Bizkaian gaztetxo onak dabilz; baina profesionaletan, orain batzuk egon arren, urte batzuetan ez dira asko egon. Zergaitik?**

Bizkaian ondo dabilz gazteak, bai, ederto, baina profesionaletara pasetako ez dakit zer pasetan dan, kantsauta dagozala edo beharbada parranda zale handiagoak dirala Bizkaian? Behin 15-16 urte gaz parrandan pentsetan hasten dira batzuk, eta pelotariak zaindu egin behar dau. Urberuaga adibidez, gure taldekoa, profesionaletara pasau da. Hori mutilori zaintzen da pilo bat. Horren moduan zainduko balira, uste dot Markinan bertan urtego ebela profesionalak. Baina gaur egun gazteei gogorra egiten jake zaintzea. Pelotari ona izateko, burua euki behar da. Norbere burua zaindu behar da pelotan aurrera egiteko. Beste hainbat ezaugarri be behar dira, eskuak... baina norbere burua zaintzen ez badau pelotariak...

IRAKURBIDEAK

Arduraduna ■ Alvaro Rabelli

Amerikanu baten irabazi guztiak

Ortik, Lemoizko, Saratotxe auzotegitik, oin «Nuclearra» dagoan lekutik-edo, or ingeru batetik joan zan Ipar-Ameriketara gizon ezkondu bat, urrea bera baiño be piñagoa ta langille amurrutua. Irabazten eban diru guztia bialduten eutson bere andreari, baiña au nagi ta alpertzar bat zan. Gizonari aitzakia batzuk idatzi ta joan zan biziten «Bizkaiko Plasentziera», oin Plentzia deituten jakon errira, baiña antxiña Plasentzia deituten eutsen. Emen bizi zan auke-
ran jan eta edan guraiña, aiskideak, naiz gizonezko, naiz andrazko, naiz biak batera etxean artu, askaritzuak egin, «trikitia» dantzatu, pillarmunika entzun eta abar. Noiz baitean etorri zan, ba, etxera gizonori, baiña aren denporan etzegoan lez

«zaartzaroko» dirurik, eta berak aldean ez eban lez ezerbere ekarri, uste izanik bere andreak dana eralgi barik zati on bat aurreratua eukiteko ebala, etxera eltzean esku-utsik aurkitu zan, benetan narru-gorrian: laster asi jakon andrea esaten lantegiren batera bearrean joan bear leukela etxerako dirua irabazteko, baiña alde batetik lantegietan gizon zaarik eztabe nai, ta bestetik berak be ez eukan, barriz, lanean asteko gogorik eta egun baten esan eutson bere andreari, non ziran berak bialdutako ainbeste ta ainbeste diru, ta andreak eroan eban «komunera», jaso eban onen estalkia, ta ango zuloa erakutsita esan eutson gizonari: Emetitxik bera joan dira zuk bialdutako irabazi guztiak. (...)

Beste amerikanu gatz bako bat: Beste erri bateko Amerikanu bat be etorri zan emengo erri batera. Bizitza biko etxea zan berea, au da, bera alderdi batean, eta bestean beste fameli bat bizi zireala. Beronen familiko bat geixotu zan. An ebillen sendagillea joan eta etorri geratu barik. Arduretan egozan beste aldekoak zer jazoten ete zan, eta egun baten itaundu eutsen Amerikanu orreri, zer ete eukan etxeok gaixoak, eta berak erantzun eban: «Gauza andirik ezta, geixo oneri Ameriken 'Typhus' edo 'sukar-baltza' deituten deutse.

'Zaar Barri' liburutik jasoa

Egilea: Jose Antonio Oar-Arteta.

Argitaletxea: Labayru ikastegia.